

Euskal Kazetariak Hodei Egiluz Elkarteari saria ematea erabaki zutela jakitean, gogoratzen gara nola, hasiera batean, zalantza izan genuela: saria onartu ala eskertu baina errefusatu? Hodei nahi ez genuen bezala aurkitu ondoren etsita eta goibel geunden eta sari bat onartzea azalekoa iruditu zitzaigun.

Baina, eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki genuen gizarteak, orokorrean, gurekiko izandako aparteko jarrera, hurbiltasuna, zinez eskertu behar genuela.

Halaber, jakin bagenekien ere, eskertu behar genuela gizarte kontzientziarako hain garrantzitsu eta nahitaezkoa izan zen komunikabide guztien lana. Ezinezkoa izango zitzaigun lortutakoa kazetarien laguntzarik gabe. Zeuon profesionaltasunari esker Hodeiren arazoa lau haizetara barreiatu genuen. Eta, bide batez, bihotzez eskertu behar dizuegu uneoro gure Elkarteak zuongandik jasotako etengabeko errespetu eta adeitasuna. Inoiz ez gara bakarrik sentitu; aldiz, zuoi esker, errazagoa egin zaigu gizarteari elkaraztea zor izan diogun guri emandako laguntza guztiaren esker ona.

Eskerrik asko, bihotz bihotzez.

HODEI BILA ELKARTEA

Gadakaon, 2017ko ekainaren 27an.